

Ze

Mallabiko Udal aldizkaria

barri

8. alea 2011ko Abendua

2012
zoriontsya
mallabitar guztioi!





Mallabiko Udala

TELEFONO INTERESGARRIAK

Mallabiko Udala:

Tel: 943 171 461/943 170 327

Faxa: 943 175 433

Helbide elektronikoa:

mallabiaudala@euskalnet.net

Kultur Etxea:

Tel: 943 176 691

Helbide elektronikoa:

kulturetxea.mallabia@bizkaia.net

Osasun Zentroa:

Telefono zuzena: 943 177 120

Zita eskatzeko (Ermua): 943 032 630

Learreta-Markina LH Ikastetxea:

Tel: 943 170 334

Lanbide Hastapeneko

Ikastetxea (CIP):

Tel: 943 176 422

Haurreskola:

Tel: 943 172 003

Frontoia eta Polikiroldegia

Tel: 943 179 848

Debabarrena Mankomunitatea

(traste zaharrak ateratzeko):

Tel: 943 700 799

Larrialdia:

Tel: 112

Esku artean daukazue **Ze barri** aldizkariaren 8.alea, legegintzaldi berriko 1.a. Maiatzaren 22ko udal hauteskundearen ondoren Mallabiko Udala Batza ia guztiz aldatu da. Dakizuenez, hauteskunde hauetara ezin izan da aurkeztu azken lau urteetan Mallabiko Udala zuzendu duen taldeko inor, espainiar lege antidemokratikoen bidez euren eskubide zibil eta politikoak ukatu dizkietelako. Hala ere, sentsibilitate hori ordezkatuko duen talde berria osatu dugu eta aurrera jarraitzeko apustu sendoa egin dugu.

Horrenbestez eta PNVn ere aldaketak egon direlako, bozketako emaitzen ondorioz 9 zinegotzietatik, 8 berriak gara udaleko zereginetan. Berriak izan arren ez zaigu lanerako gogoia eta ilusioa falta, horretan ari gara azken 6 hilabeteotan eta konturatu gara eginkizun ugari ditugula bideratzeko. Ekainean lur hartu genuen Udalean eta poliki-poliki ari gara herriko errealitatea ezagutzen, bertako arazoetaz jabetzen, hartu beharreko erabakiak hartzen...

Gure lanean, zuen mallabitarron, laguntza ezinbestekoa dugu. ZER egiten dugun bezain garrantzitsua delako NOLA egiten dugun eta arreta berezia eskaini nahi diogu horri. Herriarekin elkarlanean eraiki nahi dugu etorkizuneko Mallabia. Zuekin guztioekin aritu nahi dugu eta horretarako kolaborazio-bide guztiak ireki nahi ditugu. Ez utzi ideia bat proposatu gabe, etorri Udalera eta plazaratu zuen iritziak eta iradokizunak, parte hartu auzo batzarretan. Erronka handia daukagu aurrean

Mallabia herri bizia izan dadin eta etorkizun oparoa izango duen herria eraiki dezagun denon artean.

Aipatu beharrean gaude ez direla ekonomikoki garai onenak, krisia gogor astintzen ari delako gure eskualdea ere, eta Udalak jasotzen dituen subentzioak asko jaitsi direla. Horren ondorioz, egitasmo batzuk aurrera ateratzeko zailtasunak izango ditugu baina, ahal dugun neurrian lehenetsuneko proiektuak aurrera ateratzen saiatuko gara; **ogi gogorrari hagin zorrotzekin** helduko diogu.



Tenéis entre manos el ejemplar número 8 de la revista *Ze Barri*, el primero de esta nueva legislatura, y después de estas últimas elecciones del 22 de Mayo la corporación municipal ha cambiado casi en su totalidad. Como bien sabéis, no ha podido presentarse la representación que ha dirigido estos últimos cuatro años el Ayuntamiento de Mallabia, porque mediante leyes antidemocráticas españolas se les han negado los derechos civiles y políticos. Aún así, hemos formado un nuevo grupo para poder defender esa sensibilidad y hemos hecho una apuesta firme para seguir adelante.

Por lo tanto, y porque en el PNV ha habido también cambios, como consecuencia de los resultados electorales, de 1@s 9 concejales 8 somos nuev@s en los quehaceres municipales. Pero aún siendo nuev@s no nos faltan ganas e ilusión, estamos en ello estos últimos 6 meses y nos hemos dado cuenta que tenemos muchas cosas para encauzar. Aterrizamos en junio en el Ayuntamiento y poco a poco estamos conociendo la realidad del municipio, percatándonos de los problemas que hay aquí, tomando las decisiones necesarias...

En nuestro trabajo, es indispensable, la ayuda de vosotros@, mallabitarras. Porque tan importante como lo QUE hacemos es CÓMO lo hacemos, y le queremos dar especial importancia a esto. Queremos construir el Mallabia del futuro en colaboración con el pueblo. Queremos estar con vosotros y para ello queremos abrir todos los caminos para la colaboración. No dejar ninguna idea sin proponerla, venir al Ayuntamiento y hacernos saber vuestras propuestas y sugerencias, tomar parte en las reuniones de barrios. Es un reto importante para que Mallabia sea un pueblo vivo y próspero.

Tenemos que reseñar, que los tiempos en los que estamos no son los mejores económicamente hablando, porque la comarca está muy afectada por la crisis, y las subvenciones que recibe el Ayuntamiento han bajado mucho. Por todo ello, tendremos dificultades para llevar adelante ciertos proyectos pero intentaremos llevar a cabo en la medida de lo posible los que tengan prioridad y hacer frente a la marea.

UDALBATZA BERRIA ETA BATZORDEEN OSAKETA

Nueva corporación y comisiones que la componen

2011ko Maiatzaren 22an izan ziren Udal Hauteskundeen ondoren eta bertako emaitzak ikusirik:



| BILDU | EAJ-PNV | PSE-PSOE | PP |
|------------------------|------------------------|------------------------|------------------------|
| 363 bozka/votos | 301 bozka/votos | 31 bozka/votos | 12 bozka/votos |
| 5 zinegotzi/concejales | 4 zinegotzi/concejales | 0 zinegotzi/concejales | 0 zinegotzi/concejales |

UDAL BATZORDEAK / COMISIONES MUNICIPALES

HIRIGINTZA ETA INGURUMEN BATZORDEA

Comisión de Urbanismo y Medio Ambiente

BATZORDE BURUA: Joseba Koldo Pradera Olaso (BILDU)

- Maria Milagros Mondragon Sagastagoia (BILDU)
- Jose Luis Arriaga Larrañaga (BILDU)
- M^a Itziar Garitagoitia Baskaran (EAJ-PNV)
- Igor Agirre Barrientos (EAJ-PNV)

ORDEZKOAK / SUSTITUT@S

- Unai Uzuriaga Etxabe (BILDU)
- Jesus Gisasola Gisasola (EAJ-PNV)

GIZARTE ONGIZATE ETA EMAKUMEAREN BATZORDEA

Comisión de Bienestar Social y Área de la Mujer

BATZORDE BURUA: Unai Uzuriaga Etxabe (BILDU)

- Maria Milagros Mondragon Sagastagoia (BILDU)
- Xabat Areitioaurtena Aldana (BILDU)
- Miren Josune Txakartegi Arrieta (EAJ-PNV)
- Igor Agirre Barrientos (EAJ-PNV)

ORDEZKOAK / SUSTITUT@S

- Joseba Koldo Pradera Olaso (BILDU)
- M^a Itziar Garitagoitia Baskaran (EAJ-PNV)

KONTUETARAKO BATZORDE BEREZIA (Kontuak eta Pertsona- leko Batzorde Iraunkorra)

Comisión Especial de Cuentas y Personal

BATZORDE BURUA: Xabat Areitioaurtena Aldana (BILDU)

- Maria Milagros Mondragon Sagastagoia (BILDU)
- Joseba Koldo Pradera Olaso (BILDU)
- Jesus Gisasola Gisasola (EAJ-PNV)
- Miren Josune Txakartegi Arrieta (EAJ-PNV)

ORDEZKOAK / SUSTITUT@S

- Jose Luis Arriaga Larrañaga (BILDU)
- Igor Agirre Barrientos (EAJ-PNV)

HERRITARREN PARTE HARTZE- RAKO, KOMUNIKAZIORAKO ETA AUZOETAKO BATZORDEA

Comisión de Participación Ciudadana, Comunicación y Barrios

BATZORDE BURUA: Jose Luis Arriaga Larrañaga (BILDU)

- Maria Milagros Mondragon Sagastagoia (BILDU)
- Unai Uzuriaga Etxabe (BILDU)
- Jesus Gisasola Gisasola (EAJ-PNV)
- M^a Itziar Garitagoitia Baskaran (EAJ-PNV)

ORDEZKOAK / SUSTITUT@S

- Xabat Areitioaurtena Aldana (BILDU)
- Igor Agirre Barrientos (EAJ-PNV)

Ekainaren 11ko Udal Osoko bilkuran zinegotzi bakoitza bere karguaz jabetzeaz gain alkate berria aukeratu zen: Mila Mondragon. Bera izango da datozen lau urteetan Mallabiko herria eta Udala zuzenduko duena.

Berehala lanean hasteko konpromisoa hartu eta udalaren antolamendurako beharrezkoak diren batzorde ezberdinak antolatzeari ekin zion. Hauek abuztu aurretik eratu geratu ziren, ondoren azaltzen dizuegun bezala.

En el Pleno del Ayuntamiento del 11 de junio tomaron posesión del cargo cada uno/a de los concejales además de la nueva Alcaldesa: Mila Mondragon. Ella será la que dirigirá los próximos cuatro años el municipio de Mallabia y su Corporación.

Cogió inmediatamente el compromiso y comenzó a organizar los distintas comisiones que hacen falta para la organización del Ayuntamiento. Estos quedaron compuestos antes de agosto como podéis ver a continuación.

EUSKARA, KULTURA, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA KIROL BATZORDEA

Comisión de Euskera, Cultura, Educación, Juventud y Deporte

BATZORDE BURUA: Unai Uzuriaga Etxabe (BILDU)

- Maria Milagros Mondragon Sagastagoia (BILDU)
- Xabat Areitioaurtena Aldana (BILDU)
- Jesus Gisasola Gisasola (EAJ-PNV)
- M^a Itziar Garitagoitia Baskaran (EAJ-PNV)

ORDEZKOAK / SUSTITUT@S

- Joseba Koldo Pradera Olaso (BILDU)
- Miren Josune Txakartegi Arrieta (EAJ-PNV)

UEMA, es la Mancomunidad de los Municipios Euskaldunes, y su principal objetivo es que todas las funciones que se realizan en otras lenguas las haga el euskara; es decir, que el castellano y el francés no sean indispensables para poder vivir con total normalidad.

La ley actual del Sur de Euskal Herria reconoce en cierto modo a la ciudadanía vasca el derecho a vivir en euskara; en cambio, a la administración le exige que tome medidas para que se ejecute este derecho. Por ello, es trabajo de UEMA el que se tomen medidas para garantizar que se cumpla ese reconocimiento y abrir los caminos necesarios para que en todos los sectores del municipio se pueda funcionar en euskara con toda normalidad: en casa, en la calle, en la administración, en el comercio, en la economía, en los servicios, entre amigos...; así como, el coordinar a todos los municipios que compartan esta intención, dotándoles de una planificación. Para UEMA es necesario fortalecer los lazos con las entidades que están a favor del euskara, respetando siempre la actividad de cada uno y complementándose.

Hoy en día, UEMA diseña en cooperación con la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco los planes de utilización del euskara para los municipios de CAV. Impulsa el Plan General para Revitalizar el Euskara y los Planes de Acción.

UEMA coopera con los movimientos populares en favor del euskara:

- **Kontseilua:** Además de ser cooperante, ha medido la política lingüística en varios municipios.
- **Topagunea:** Dinamiza ELEjira cultural y coopera en la integración de los recién llegados al municipio.
- **Behatokia:** UEMA ha firmado convenio para hacer cumplir los derechos lingüísticos de los euskaldunes.
- **Elhuyar:** Ha firmado convenio para traducir al euskara los expedientes municipales.
- **Iberba:** Trabaja en cooperación para realizar la guía de los profesionales euskaldunes.

El Consejo de Dirección de UEMA se renovó en octubre y esta compuesto por representantes de Bildu, independientes, EAJ/PNV y Aralar.

Mallabia se incorporó a UEMA en abril de 2008 como consecuencia de la decisión adoptada por unanimidad en el Pleno municipal con los votos de ANV/EAE y EAJ/PNV. Desde entonces, han estado trabajando conjuntamente los dos grupos a favor de la normalización del euskara. Sin embargo, en julio, la representante del PNV de Mallabia renunció a su cargo en UEMA.

EAJ/PNVek UEMAri uko Renuncia de EAJ/PNV a UEMA

UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea da, eta bere helburu nagusia, erdarek betetzen dituzten funtzio guztiak euskarako bereganatzea da, hau da, gaztelania eta frantsesa ezinbestekoak ez izatea normaltasun osoz bizi ahal izateko.

Hego Euskal Herriko egungo legeriak era eta maila batean edo bestean euskaraz bizi izateko eskubidea aitortzen die herritar euskaldunei; administrazioari, berriz, eskubide hau gauzatu dadin neurriak har ditzala exijitzen dio. UEMAren zeregina da, beraz, aitorten hori gauzatzeko beharrezko neurri guztiak hartzea eta giza harremanak herriko sektore guztietan etxean, kalean, administrazioan, komertzioan, ekonomi arloan, zerbitzuetan, lagunartean... normaltasun osoz euskaraz burutu ahal izateko bideak zabaltea; bai eta asmo horrekin bat egiten duten udalerri guztiak koordinatu eta plangintza baten inguruan egituratzea ere. UEMAren iritziz, beharrezkoa da euskararen aldeko erakundeekin elkarlana sendotzea eta indarberitzea, beti ere, bakoitzaren jardura errespetatuz eta osagarritasuna bilatuz.

Egun, UEMAk, EAEko udalen euskararen erabilera planak Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin lankidetzan diseinatzen ditu. Euskara Biziberritzeke Plan Nagusia eta Ekintza Planak bultzatzen ditu.

Herri mugimendu euskaltzalearekin lankidetzan dihardu UEMAk:

- **Kontseilua:** kide so-egile izateaz gain, lankidetzan hainbat udaletako hizkuntza - politika neurtu da.
- **Topagunea:** Kultur ELEjira dinamizatu eta etorri-berriak herritartzeko lankidetzan dihardu.
- **Behatokia:** euskaldunen hizkuntza eskubideak zaintzeko hitzarmena sinatu du UEMAk.
- **Elhuyar:** udal espedienteak euskaratzeko hitzarmena sinatu da.
- **Iberba:** profesional euskaldunen gida osatzeko lankidetzan dihardugu.



UEMAren Zuzendaritza Batzordea urriaren batean berritu zen Zestoan eta Bildu, independenteak, EAJ eta Aralarreko kideek osatzen dute.

Mallabiko herria 2008ko apirilean sartu zen UEMAn, udal Plenoan ANV/EAE eta EAJ/PNVk aho batez onartuta. Harrezkero, udalean ordezkaturik dauden bi alderdiek elkarlanean jardun dute euskararen normalizazioaren alde aurrerapausoak ematen. Hala ere, Mallabiko PNVko ordezkariak, uztailean, uko egin zion UEMako ordezkariari.

PLAN OROKORRAREN

PROPOSAMENA ONARTU DU UDALBATZAK

Aprobada la propuesta del Plan General en Pleno

Aho batez onartu du udalak Aholku Batzordeak hartutako erabakia.

Hiri Antolamendurako Plan Nagusia erredaktatzeko Mallabia, denon artean parte-hartze prozesua martxan jarri zuen udalak. Aholku Batzordea sortu zen, eta kontseiluak erredaktatu du proposamena. Herritarren artean informazioa zabaldu eta alegazioak jaso ondoren, udalbatzarrak planaren aurrerapena aho batez onartu du.

Debarrenako Zatikako Lurralde Planak gutxienez, 104 etxebizitza eraikitzea proposatzen du. Udalaren ustez, gehiegizkoa da eta ez da egokitzen herrian dauden beharretara. Planean onartu dute herrigunean, Kalbario kalean jausteko zorian dauden etxeak bota eta 36 etxebizitza eraikitzea, eta Roke Deuna kalean beste 40 etxebizitza. Behe-solairuetan ere etxebizitzak eraikitzeko aukera izango da.

Areitio, Goitondo eta Urtiako industriaguneetarako, Debarreneko LZPak 70 hektarea handitzea aurreikusten du. Udalak 10 hektareako gehieneko ezarri gura du, lehentasuna emanez dagoen lurzoru industrialak sendotzeari eta urbanizazio zaharkituak berriztatzeari.

Oinezkoentzako bide-sarea zabaltzea ere onartu dute Mikrodekotik Osmara doan bidean espaloia egiteko eskatuz Bizkaiko Foru Aldundiari, eta Mallabarrenatik doan erreka inguruak ere paseo bihurtuz.

Hemendik aurrera, Hiri Antolamendurako Plan Nagusia idazten ari den taldeak finkatuta dauzka lan ildo nagusiak behin behineko plana egiteko. Hala ere, oraindino erabakitzeko geratu dira beste alor batzuk; ekipamenduak, garraio bide sarea, landa-guneak, ondarea, e.a.

El Ayuntamiento ha aprobado por unanimidad la decisión tomada por la Junta Asesora.

El Ayuntamiento puso en marcha el proceso de participación ciudadana "Denon artean" para la redacción del Plan General de Ordenación Urbana. Se creó la Junta Asesora y el consejo ha redactado la propuesta. Después de transmitir la información a los vecinos y recoger las alegaciones, el Pleno municipal ha aprobado por unanimidad el avance del plan.

El Plan Territorial Parcial de Debarrena propone la construcción de al menos 104 viviendas. El Ayuntamiento considera que son demasiadas y que no se ajustan a las necesidades del pueblo. En el Plan han aprobado derribar las casas que están a punto de caerse en la Calle Kalbario y construir 36 viviendas, además de otras 40 viviendas en Roke Deuna. También se dará la oportunidad para construir viviendas en los pisos bajos.

Para los polígonos industriales de Areitio, Goitondo y Urtia el PTP prevé ampliar 70 hectáreas. El Ayuntamiento quiere poner como tope 10 hectáreas, dando prioridad a fortalecer el suelo industrial existente y a renovar las urbanizaciones obsoletas.

Se ha aprobado también abrir red-viaria peatonal, pidiendo a Diputación de Bizkaia construir una acera desde Microdeco a Osmara, y convirtiendo en paseo los alrededores del río de Mallabarrena.

De aquí en adelante, el grupo que está redactando el Plan General de Ordenación Urbana tiene marcada la línea principal para el plan provisional. No obstante, quedan por decidir otros aspectos como equipamientos, red de medios de transporte, núcleos rurales, patrimonio, etc.

Fueron diversos los mallabitaras que subieron al alto de Areitio a darle la no bienvenida a la Vuelta España.

El que pase la prueba ciclista española más importante por Euskal Herria no ha sido una casualidad y no responde a criterios deportivos. Han sido diversas las pruebas ciclistas que se han cancelado por la falta de ayudas que las mantenían hasta ahora, sin embargo, con la Vuelta no han tenido ningún problema para gastar miles de euros.

Han querido dar a entender que Euskal Herria no existe, y sus propósitos han sido el dibujar el sur de Euskal Herria como parte de España, que los vasc@s apoyan la Vuelta España y han querido transmitir que con el PSE en el Gobierno Vasco han cambiado las cosas.

Por todo ello, el Pleno del Ayuntamiento aprobó esta moción, con cuatro abstenciones y con cinco votos a favor:

- Todos los representantes en este Pleno darán su opinión sobre el paso de la Vuelta España por Euskal Herria.
- Este Ayuntamiento dará a conocer públicamente las opiniones de los representantes que han participado en el Pleno.
- Euskal Herria somos una nación que está compuesta por siete provincias, 21.000 km² y 3.000.000 habitantes. Manifestamos nuestro deseo de soberanía y el derecho a representar a nuestro pueblo a nivel internacional y aún así, el estado español y el francés nos niegan el derecho a decidir nuestro futuro.
- Los mismos que nos deniegan el que seamos una nación, traen con la intención de ratificar esa negación esta importante prueba deportiva a nuestro pueblo. Por ello, este Pleno proclama que la Vuelta España no es bienvenida a Euskal Herria ni tampoco en nuestro pueblo.
- Unirse a la expresión bajo el lema "Si al ciclismo, no a la imposición, Euskal Herria nación". Dar a conocer por los cauces habituales a la población.
- Los días que se espera pase la Vuelta España por Euskal Herria poner en el balcón del Ayuntamiento *Txirrindularitza bai! Inposaketarik ez! Euskal Herria nazioa!* de modo visible.

Pasó la Vuelta España, e intentaron acallar nuestras intervenciones, aunque no lo consiguieron, y las banderas españolas que aparecieron fueron las de los cuarteles.

Ya están preparando la del próximo año.

Hainbat eta hainbat mallabitar igo ziren Areitio gainera Vuelta Españari ez ongi etorria ematera.

Espainiar txirrindularitza froga garrantzitsuena Euskal Herritik pasatzea ez da izan kasualitatea eta ez dio erantzuten kirol irizpideei. Hainbat eta hainbat txirrindularitza froga bertan behera utzi dituzte hauek sostengatzen zituzten laguntzak etetearekin, Vueltarekin berriz, inolako arazorik ez dute izan milaka euro xahutzeko.

Euskal Herria ez dela existitzen plazaratu nahi izan dute eta euren helburuak Hego Euskal Herria Espainiaren zati bat dela irudikatzea, euskal herritarrak Vuelta España-rekin bat egiten dutela pentsarazten saiatzea eta PSErekin Jaurilaritzan gauzak aldatu direla frogatzea izan da.

ESPAINIAKO ITZULIA DELA ETA La Vuelta España

Horrela Udal Osoko Bilkuran honako mozioa onartu zen lau abstentzio eta aldeko bost botorekin:

- Osoko bilkura honetan dauden ordezkariak guztiek Espainiako Itzulia Euskal Herrira etortzearen inguruko iritzia ematea.
- Udal honek, osoko bilkuran parte hartu duten ordezkarien erantzun eta iritzia publikoki plazaratzea.
- Euskal Herria zazpi herrialdez, 21.000 km² eta 3.000.000 herritarrez osaturiko nazioa gara. Gure buruaren jabe izan eta nazio artean gure herria ordezkatzeko eskubidea dugula eta halere, espainiar eta frantses estatuak gure etorkizuna erabaki ahal izateko eskubidea ukatzen digutela aldarrikatzen dugu.
- Gure nazio izatea ukatzen digutenek, ukazio hori berresteko helburuarekin dakartela kirol froga garrantzitsu hau gure herrira. Horregatik, udal batza honek, Espainiar itzulia ez dela ongi etorria Euskal Herrian, ezta gure herrian ere aldarrikatzen dugu.
- "Txirrindularitzari bai, inposaketari ez, Euskal Herria nazioa!" lelopean aurkezturiko adierazpenarekin bat egitea. Bat egite honen adierazpena ohiko bideetatik jakinaraztea herri-tarrei.
- Espainiar itzulia Euskal Herrian sartzea espero den egunetan udal-eko balkoian *Txirrindularitza bai! Inposaketarik ez! Euskal Herria nazioa!* leloa modu ikusgarri baten zintzilikatzea.



Pasa zen Vuelta España, gure eta gurea bezalako agerraldiak isilarazten saiatu ziren (nahiz eta ez lortu) eta azaldu ziren espainiar banderak kuartel-takoak izan ziren.

Dagoeneko datorren urtekoa prestatzen ari dira.

ZERGAITIK EZ ATEZ ATEKO ZABOR BILKETA?

¿Por qué no una recogida de basuras puerta a puerta?

Gutariko gehienok etxeko zaborra poltsetan sartu eta kalean dau- den kontenedoretan ezkututzen dugunean, zaborraren arazoa desagertu dela, guretzat, uste dugu. Oker gaude, arazoa hasi beste- rik ez da egin.

Bizi dugun eredu kontsumistak horretara bultzatzen gaitu; erosi eta erosi, ditugun baliabide naturalak agortzeko punturaino heldu eta zabor tona izugarriak sortu. Gero eta zabor gehiago sortzen dugun arren oso gutxi birziklatzen dugu. Kaleko edu- kiontzi bidez egindako bilketak gehienez %35eko birziklatze tasa lortzen du. Gai- nerako guztia, gehiengo, %65, nahastu- ta biltzen dugu eta zabortegira doa.

Euskal Herriko zabortegi askok ez dute gaitasunik Europatik eskatzen diren irizpide berrie- tara egokitzeko, eta itxi egin beharko dira. Gainera, Ermuko eta Mallabiko zabo- rra Azpeitiko Lapatxera daramate. Gipuzkoako zaborra Igorre, Jata eta Ortuella- ra daramate, eta, noski, zaborraren turismo hori oso garestia da gure poltsikorako, ordaintzen ditugun tasak gero eta garestiagoak dira eta horrek helburu maltzur bakarra du: errauskailuarekin zabor tasak merkatzea, eta gizarteak onartu ditzala erraustegiak irtenbide bakar bezala.

Badira European barna eta Euskal Herrian bertan zaborra kudeatzeko bestelako es- perientziak, errauskailuen alternatibak. European aski frogatuta dago eta 100.000 biztanletik gorako herrietan aurrera eraman dute planteatzen dugun esperientzia (Danimarkan, Frantzia, Italian), Katalunian ere aspalditik egiten ari dira. Euskal Herrian Usurbilgo Udala izan zen aitzindari, ondoren Hernani, Ordizia eta Antzuo- lara zabaldu zen; orain Debagoienako herri guztietara eta Goierrialdera zabaltzeko asmoa dago. Atez ateko zabor-bilketaz ari gara. Esperientzi horrekin %30 birzikla- tzetik % 80 birziklatzera pasako litzateke (Usurbilen %82 birziklatzen dute).

Onartezina dena, zaborra negozio bihurtzea da; errauste-planta garestiak eraiki- tzen dituzten enprekin, eta horien mantenu garestiari eustea (Zabalgardi 2009an bertan zenbait hilabete egon zen itxita akats teknikoak zirela medio). Horrela jakin da Foru Aldundiek interes ezutuak izan dituztela atez ateko zabor bilketaren espe- rientziak izan dituen emaitza onuragarriak ostentzeko eta martxan jarri diren he- rrietan egiten ari diren lana oztopatzeko.

Apustu serioa egin beharko litzateke sistema honen alde, zaborraren arazoa guztion arazoa delako. Osasun arazoa delako. Ez gaitetzen erori erraz eta oso garestiak izan daitezkeen konponbideetan.



El modelo consumista en que vivimos nos impulsa a comprar, consumir y tirar, creando toneladas de basura. Cada vez producimos más basura pero reciclamos muy poco. Las recogidas que se hacen a través de los contenedores de la calle logran como mucho una tasa de reciclaje del 35%. Todo lo demás, la mayoría, el 65%, lo recogemos mezclado y va directamente al vertedero.

Muchos de los vertederos de Euskal Herria no tienen la capacidad de adecuarse a los nuevos criterios que se piden desde Europa, y deben ser cerrados. Además, la basura de Ermua y Mallabia la llevan a Lapatx, en Azpeitia. Desde Guipúzcoa se lleva la basura a Igorre, Jata y Ortuella, y, claro este turismo de basura sale muy caro para nuestros bolsillos. Las tasas que pagamos son cada vez más caras y eso solamente tiene un malicioso objetivo: hacer creer a la población que las tasas de basura serán más baratas con las incineradoras, y así la población aceptar las incineradoras como única solución.

En Europa y en Euskal Herria hay otras experiencias para gestionar la basura, alternativas a las incineradoras. En Europa está probado y lo han hecho en poblaciones de más de 100.000 habitantes en Dinamarca, Francia, Italia... Lo están haciendo desde hace tiempo en Cataluña, y en Euskal Herria el Ayuntamiento de Usurbil fue pionero en poner en marcha esta experiencia; le siguieron los ayuntamientos de Hernani, Ordizia y Antzuola. Próximamente se pondrá en marcha en todos los pueblos de Debagoiena. Nos referimos a la recogida de basura puerta a puerta. Con esta experiencia se pasaría de reciclar el 30% a reciclar el 80% (Usurbil recicla el 82%).

No se puede aceptar que la basura se convierta en negocio para empresas que construyen costosas plantas incineradoras y además pagar su alto mantenimiento (en 2009 Zabalgardi estuvo meses cerrado por problemas técnicos). Se ha demostrado que la experiencia de recogida puerta a puerta ha tenido resultados beneficiosos, y que las Diputaciones han tenido intereses encubiertos para esconderlos y poner trabas en los pueblos en que se ha puesto en marcha.

Debemos hacer una apuesta por este sistema, porque el problema de la basura es un problema de todos; es, además, un problema de salud. No caigamos en soluciones fáciles y costosas.

En la próxima revista *Ze Berri* tendréis información más detallada sobre los presupuestos municipales para 2012, ya que serán aprobados a finales del mes de diciembre. Por ahora, presentaremos aunque sea por encima los problemas con los que nos hemos encontrado al preparar estos.

Udalkutxa

La ciudadanía cree desde hace tiempo que gran parte de los impuestos los gestiona el ayuntamiento. No es así, la mayor parte se la lleva el Gobierno Vasco y el 25% de lo que recoge lo reparte entre las diferentes Diputaciones y éstas reparten el 10% más o menos entre los ayuntamientos. La cantidad total se decide en función del número de habitantes del municipio. Este dinero comprende la caja de Udalkutxa y gracias a este dinero se mantienen los ayuntamientos. Se prevé que para el próximo año el Ayuntamiento de Mallabia reciba **815.000 €**.

Si la recaudación de impuestos es menor de la esperada la cantidad de dinero a recibir de Udalkutxa también suele ser menor. Este año se deberán devolver a la Diputación Foral de Bizkaia. 47.000€ por este concepto. Esto crea grandes problemas en los ayuntamientos en general, porque este dinero se gasta durante el año y las Diputaciones Forales no les comunican a los ayuntamientos hasta el último trimestre del año.

Tasas

Se cobran por recogida de basura, servicio de alcantarillado, abastecimiento de agua, utilización de instalaciones municipales, etc. En algunas tasas, el ayuntamiento no tiene mucha libertad de actuación. Por ejemplo, la Mancomunidad cobrará al Ayuntamiento **272.000 €** por recogida de basura y limpieza viaria y el Ayuntamiento deberá recaudar esa cantidad de la ciudadanía para poder hacer frente a las facturas de la Mancomunidad. La subida de la basura que se prevé en la Mancomunidad es del 5%.

En el abastecimiento de agua el ayuntamiento aplicará una subida del 2%.

Las otras tasas: utilización de instalaciones

AURREKONTUAK

Presupuestos en bruto

Hurrengo *Ze Berri* aldizkarian 2012rako udal aurrekontuen berri sakonagoa izango duzue abenduaren amaieran onartzekoak baitira. Oraingoan aztertuko dugu, gaintik bada ere, zer arazorekin aurkitu izan garen hauek egiterakoan.

Udalkutxa

Herritarrek pentsa dezakete euren zergen zati handi bat udalak gestio-natzen duela. Ez da horrela, honen zatirik handiena Eusko Jaurlaritzak jasotzen du, eta jasotzen duenaren %25 Foru Aldundiei banantzen die eta Foru Aldundi ezberdinek jasotzen dutenaren %10, gutxi gorabehera, udalerrien artean banantzen du. Banaketan tokatzen zaien diru kopurua herrian erroldatuta daudenak kontuan hartuta erabakitzen da. Diru honek osatzen du Udalkutxa, eta honi esker, batez ere, mantentzen dira udalak. Datorren urterako Mallabiko udalak **815.000€** jasoko dituela uste da.

Bizkaiko Aldundian zerga bilketa espero baino gutxiago bada, Udalkutxatik jasotzen den dirua ere gutxiago izaten da; aurren Bizkaiko Foru Aldundiari 47.000€ itzuli beharko zaizkio kontzeptu honengatik. Honek arazo handiak sortzen ditu udal gehienetan, gehienetan diru hori, urtean zehar, gastatzen delako eta Foru Aldundiek urtearen azken hiruhilabetean jakinarazten dietelako udalei.

Tasak

Zabor bilketa, estolderia zerbitzua, ur hornidura, udal instalazioen zerabilera eta abarregatik udalak kobratzen duena da. Kasu batzuetan, udalak ez du askatasunez jokatzeko aukera handirik. Adibidez Mankomunitateak udalari **272.000€** kobratu behar badizkio zabor bilketa eta kale garbiketarik, Udalak herritarrengandik kantitate hori jaso behar du mankomunitatearen fakturei aurre egiteko eta % 5 igotzea aurreikusitako dute.

Ur horniduraren tasen igoera, udalak markatzen du eta %2a igoko da.

Beste tasak: udal instalazioen zerabilera, hilerria, kultur zerbitzuak, agiriak... udalak markatzen ditu eta orain arte, igoerarik txikiena izan dutenak dira.

Baina aurren, kirol tasak igo beharrean aurkitzen gara. Mallabia I pilotalekuak eta kiroldegia **94.000€**tik gorako defizita du udalarentzat urtero, eta horrela jarraitzea gaur egun jasanezina da udalarentzat. Horregatik, bertako erabiltzaileek zerbitzu hori erabiltzeagatik igoera izango dute, batez ere Mallabian erroldatuta ez daudenak izango dute igoerarik nabarmena.



GORDINEAN

Industriaguneen mitoa

Sarri entzuten dugu zelako aberatsa den Mallabiko Udala udalerrian kokatzen diren industriaguneak direla eta. Ba, datorren urtean Iharduera Ekonomikoen gaineko Zerga dela eta Mallabiko Udalak **170.000€** jasoko duela aurreikusten da. Garbi dago Mallabian dagoen industria kopurua eta bertatik herriak jasotzen duen etekina udalarentzat oso deskontentsatua dagoela. Bizkaiko politika fiskala aldatu beharra ikusten da horrelakorik gerta ez dadin.

Zuzeneko zergak

Zerga hauek dira Udalak zuzenean jasotzen dituenak. Multzo hau osatzen dute Iharduera Ekonomikoen gaineko Zergekin batera, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak (IBI) eta ibilgailuei ezartzen zaizkien zergak. Datorren urterako lehenengoarekin **160.000€** eta bigarrenarekin **108.000€** jasotzea espero da.

Gastuak

Aurten oso urruti gaude 2007ko ia 3,4 milioi haietatik. Aspaldi hasi ginen estutzen gerrikoa, joka dezagun guztiok arduratsu!

2012ko Gastuak

| | |
|--|--------------------|
| Goi-karguak Altos cargos | 95.200 € |
| Administrazio orokorra Administración general | 510.600 € |
| Gizarte Ekintza Acción Social | 139.400 € |
| Osasuna Salud | 12.100 € |
| Hezkuntza Educación | 342.950 € |
| Hirigintza Urbanismo | 179.100 € |
| Ur-saneamendua, hornikuntza eta banaketa Saneamiento, abastecimiento y distribución de aguas | 136.000 € |
| Hondakinen kudeaketa eta bide garbiketa Gestión de residuos y limpieza viaria | 272.000 € |
| Kultura Cultura | 231.970 € |
| Kirolak Deportes | 85.250 € |
| Errepideak, auzobideak eta hiri-bide publikoak Carreteras, caminos rurales y vías públicas urbanas | 25.000 € |
| Administrazio publikoei egindako transferentziak Transferencias a administraciones públicas | 68.150 € |
| Zor publikoa Deuda pública | 158.000 € |
| GUZTIRA | 2.255.720 € |

2012ko Diru sarrerak

| | |
|---|--------------------|
| Zuzeneko zergak Impuestos directos | 443.780 € |
| Zeharkako zergak Impuestos indirectos | 40.000 € |
| Tasak eta bestelako sarrerak Tasas y otros | 647.050 € |
| Transferentzia arruntak Transferencias comunes | 883.240 € |
| Ondare sarrerak Ingresos patrimoniales | 3.600 € |
| Kapital Transferentziak Transferencias de capital | 238.050 € |
| GUZTIRA | 2.255.720 € |

municipales, cementerio, servicios culturales, documentación, etc., los marca el Ayuntamiento y son los que hasta ahora han tenido la menor subida.

Pero este año nos vemos obligados a subir las tasas por la utilización de las instalaciones deportivas. El frontón y polideportivo Mallabia tienen un déficit anual para el Ayuntamiento de más de **94.000 €** y seguir de esta manera hoy en día es intolerable para su economía. Está claro que los usuarios deben soportar esta subida y, sobre todo, los que no estén empadronados en Mallabia.

El mito de los polígonos industriales

A menudo oímos que el Ayuntamiento de Mallabia es rico (tiene dinero) por los polígonos industriales ubicados en el municipio. El próximo año el Ayuntamiento de Mallabia recaudará en concepto de impuesto de actividades económicas **170.000 €**. Está claro que está muy descompensada la cantidad de industria que hay en Mallabia con el dinero que percibe el Ayuntamiento de ella. Es necesario cambiar la política fiscal de Bizkaia para que no ocurra esto.

Impuestos directos

Estos impuestos que recauda el Ayuntamiento directamente son, junto con el Impuesto sobre Actividades Económicas, el

Impuesto de Bienes Inmuebles

(IBI) y el impuesto de los vehículos. Para el próximo año se espera recaudar con el primero **160.000 €** y con el segundo **108.000 €**.

Gastos

Estamos muy lejos de los 3,4 millones del año 2007.

Hace tiempo que empezamos a apretarnos el cinturón, por lo tanto actuemos todos con responsabilidad.

Josefa Pagaegi, 100 años de vida

Con motivo de la celebración del centenario de Josefa, del caserío Urkixa, el Ayuntamiento de Mallabia le ha querido rendir un pequeño homenaje en representación de todos los vecinos del pueblo.

Reuniones con los vecinos del casco urbano y de los barrios

Se quiere reforzar la relación entre el Ayuntamiento y los vecinos del municipio recogiendo las diferentes opiniones y sugerencias.

El Ayuntamiento de Mallabia se reunió los meses de septiembre y octubre con los vecinos del casco urbano y de los barrios para establecer un primer contacto con ellos y enterarse de primera mano de las necesidades que tienen.

El 22 de septiembre se reunieron con el vecindario de los barrios de Gereá y Longa en la sociedad de Gereá. El 26 de septiembre con el vecindario de Goita, en la sociedad de San Juan. Con los vecinos de Areitio, casco urbano, Osma y Zengotita el 3 de octubre en la Casa de Cultura. Con los vecinos de Berano Txiki, Berano Nagusi y Arandoño se reunieron el 6 de octubre.

Los mallabitarras han respondido con agrado a la iniciativa del Ayuntamiento pues así han podido explicar directamente sus necesidades. La corporación y técnicos del ayuntamiento están intentando dar solución a los problemas planteados, aunque la mala situación económica hace que las dificultades aumenten.

Este verano han renovado las aulas de Educación Infantil

Este verano se han renovado por completo las aulas de Educación Infantil. La última semana de junio empezaron con los trabajos y en septiembre ha comenzado, sin ningún problema, el nuevo curso escolar. Se han conseguido espacios más amplios para los pequeños gracias a las puertas móviles.

En el aula de dos años se han acondicionado los servicios para los alumnos. Se han cambiado las ventanas y canalones del tejado. Por último, para subir las escaleras se ha instalado una plataforma elevadora para facilitar la movilidad.

Estos trabajos han supuesto 301.000 euros de presupuesto. El Departamento de Edu-

LABURREAN



Josefa Pagaegik 100 urte

Urkixa baserriko Josefa Pagaegik 100 urte bete zituen irailean eta Mallabiko Udalak omenalditxoa egin zion, lore sorta eta plaka bat eskainiz bere etxean, herritar guztien izenean.

Batzarrak herrigune zein auzoetako bizilagunekin

Udalaren eta herritarren arteko hartu-emaná sendotu nahi dute hauen iritzi eta iradokizunak jasoz.

Mallabiko Udala herriguneko eta auzoetako bizilagunekin bildu da irailean eta urriaren zehar bien arteko zubia eraikitzeko eta herritarren beharrianak zuzenean entzuteko asmoz.

Irailaren 22an Gereá eta Longako auzokideekin bildu ziren Gereako elkarteak. Irailaren 26an, Goitako bizilagunekin San Juango elkarteak. Areitio, herrigunea, Osma eta Zengotitako auzokideekin urriaren 3an, Kultur Etxean. Berano Txiki, Berano Nagusi eta Arandoñoko biztanleak udalarekin Artixe elkarteak batu ziren, urriaren 6an.

Auzokideek gustura erantzun diote udalaren ekimenari, batzar horietan euren prentziak azaltzeko aukera izan dutelako. Udalaren aldetik ahaleginak egiten ari gara, posible zaigun heinean, arazoei irtenbidea bilatzen, nahiz eta egoera ekonomiko txarraren ondorioz zailtasun dezente ditugun.

Haur Hezkuntzako gelak berriztu dituzte udan

Mallabian Haur Hezkuntzako gelak guztiz berriztu dituzte udan. Ekainaren azken asteak ekin zieten lanei, irailean sasoi hasi ahal izan zuten gure ikasleek ikasturte berria. Txikiakentzako espazio zabalagoak lortu dira, ate mugikorrek jarriaz eta bi gela elkartuaz espazioa bikoizteko aukera emanez.

Bi urtekoen gelak komunak ikasleentzat egokitu dituzte. Gelako leihoak eta teilatuak kanaloiak aldatu dituzte. Azkenik, eskaileretan jarrita igotzeko plataforma jarri dute mugikortasuna errazteko asmoz.

Lanok 301.000 euroko aurrekontua izan dute. Hezkuntza Sailak %60 ordaindu du, eta udalak %40. Datorren urterako leihok berriak jartzeko asmoa dago eta Lehen Hezkuntzako gelak egokitu nahi dira horretarako behar diren diru-laguntzak eskatuta dauzkagu.



Kultur Etxeko teilatua ere udan konpondu da

Amaitu dira behingoz itoginak konponduta bai dago dagoeneko Mallabiko Kultur Etxeko teilatua. Ekainaren erdialdean obrak martxan jarri zituen udalak, eta udako oporrak baliatu dituzte eraberritzea aurrera eramateko. Horrela, Kultur Etxean bazten diren herriko elkaratei ahalik eta kalte gutxien sortu ahal izan zaie, KZ bakarririk itxi behar izan zen lanak amaitu arte. Liburutegiari, aldiz, ez diote eragin lanek. Udalak 113.121 euroko aurrekontua izan du lan hauetarako.

Eraikina kultur etxe moduan egokitu eta konpondu zutenean, orain dela 15 urte, teilatua zegoen bezala utzi zuten. Harrezkero, teilak birrintzen joan dira eta itoginak sortzen ziren.



LED farola berriekin argindarra aurreztu nahian

Jaurlaritzako Industria eta Energia Sailaren dirulaguntzaz baliatuz eskola inguruan, Malle Azpi kalean eta parke inguruko farola guztiak aldatu dira. Ehuneko ehunean Jaurlaritzak ordaindu ditu farola berriak eta aldaketa honekin argi-indarraren kontsumoa aurrezteaz aparte diru ederra ere aurreratuko du udalak fakturatan.



Furgoneta berria brigadarentzat

Hainbat urteetan brigadako autoari kateatuta ikusi dugun karru zabal eta luze hura jubilatu da. Aspalditik pasa zigun abisua Ertzaintzatik ez zela posible karru hura errepidean barna erabiltzea ez bai zegoen katalogatuta. Beraz haren funtzioa betetzeko, beste hainbat tresna garraiatu eta lan ezberdin burutu ahal izateko furgoneta berria erosi du udalak.



cación ha pagado el 60% de los gastos y el Ayuntamiento el 40% restante. Para el próximo año hay intención de poner ventanas nuevas y acondicionar las aulas de Educación Primaria, para ello, se han solicitado las subvenciones necesarias.

Se ha arreglado el tejado de la Casa de Cultura

Por fin no tenemos goteras en la Casa de Cultura, después de haber arreglado el tejado. El Ayuntamiento dio inicio a las obras a mediados de junio y se han aprovechado las vacaciones de verano para llevar a cabo la reforma de la cubierta. De esta manera, se ha podido perjudicar en menor medida a los grupos locales que se reúnen en la Casa de Cultura, y solamente se tuvo que cerrar el KZ hasta terminar las obras. Estas no han afectado a la biblioteca que ha permanecido abierta durante las obras. El Ayuntamiento tenía un presupuesto de 113.121 euros para estas obras.

Hace 15 años, cuando se arregló el edificio y se acondicionó como casa de cultura, se dejó el tejado como estaba. Desde entonces se han producido goteras a causa de las tejas que se han ido deshaciendo.

Ahorrar energía con farolas LED

Con la subvención del Departamento de Industria y Energía del Gobierno Vasco, se han cambiado todas las farolas de la escuela, calle Malle Azpi y alrededores del parque. Las ha pagado al cien por cien el Gobierno Vasco, y con este cambio además del ahorro en el consumo energético el Ayuntamiento ahorrará en facturas.

Furgoneta nueva para la brigada

Hemos jubilado el carro ancho y largo que ha llevado el coche de la brigada durante muchos años. Hace tiempo nos pasaron aviso de la Ertzaintza diciendo que no era posible utilizar dicho carro en la carretera por que no estaba homologado. Por lo tanto, el Ayuntamiento ha comprado una furgoneta nueva para realizar las funciones de aquella, como traslado de diverso material y realizar distintos trabajos.

Son muchos los comentarios que se están realizando sobre Erralde en los cuatro últimos años. La realidad es que lleva cuatro años siendo el único matadero de Bizkaia y que funciona solamente con carne autóctona y que está demostrado que es viable en comparación con otros mataderos públicos.

Mientras el matadero Erralde de Durango cumple todos y cada uno de los requisitos estándar en lo que se refiere a la sanidad, Erralde mantiene el proyecto de construcción del nuevo matadero en Berriz. El proyecto técnico está elaborado, las tierras adquiridas y le falta obtener la financiación para poner en marcha las obras. Por lo tanto, Erralde espera poder llevar el servicio de matadero a Berriz dentro de dos años.

La sorpresa fue que el día 23 de noviembre el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco les comunicó a los responsables que han tomado la decisión de cerrar el matadero de Durango antes de terminar el año 2011 por no haberse adaptado a la normativa de la Unión Europea que está en vigor sobre infraestructuras.

Es de resaltar, que dicha normativa está pensada para empresas multinacionales del sector alimenticio y que la mayoría de los mataderos estatales no la cumplen, ni tampoco los de Euskal Herria. Erralde, hoy en día, en el sitio que está ubicado no puede cumplir de ninguna manera la normativa, pero en lo referente a la sanidad cumple todas y cada una de las normas.

La carne de Erralde no proviene de Ucrania y no se reparte en Europa; es carne proveniente de Euskal Herria y se reparte en Euskal Herria. Por lo tanto, si quieren cerrar Erralde se debería hacer lo mismo con todos los mataderos de las comarcas de nuestro alrededor que no cumplan la normativa.

Modelo Erralde: servicio público indispensable

Mediante este servicio, en 2011 se matarán 10.000 cabezas de ganado en Durango, del los cuales 8.000 serán de Bizkaia. Es de destacar que el 95% de los usuarios son carniceros.

La Sociedad compuesta por 15 ayuntamientos ofrece un servicio público insustituible a la comarca: en el área económica realiza un gran trabajo a favor del sector primario y los pequeños comerciantes, sin olvidarnos de los consumidores que, gracias a este servicio, pueden obtener carne autóctona de alta calidad.



Makina bat esamesa zabaldu da azken lau urteotan Erralderen inguruan. Errealitatea da lau urteotan hor jarraitu duela, Bizkaiko hiltegi bakarra dela eta bertako okelarekin bakarrik funtzionatzen duela eta aski frogatuta dagoela bideragarria dela beste hainbat hiltegi publikorekin alderatuz.

Durangoko Erralde Hiltegiak osasunari dagozkion estandar guzti-guztiak betetzen dituen bitartean, Erraldek Berrizen hiltegi berria eraikitzeko prozesua mantentzen du. Proiektu teknikoa garatuta dago, lurra bere esku du Erraldek eta obrak martxan ipintzeko finantziarioa eskuratzea geratzen zaio. Horrela, bada, bi urte barru hiltegi zerbitzua Berrizera eramateko modua izatea espero du Erraldek.

Bitartean, azaroaren 23an Jaurilaritzako Osasun Sailak jakinarazten die 2011. urtea amaitu baino lehen ixteko erabakia hartu dutela, ez delako Europar Batasunak azpiegituren inguruan indarrean duen araudira egokitu.

Esan beharra dago araudi hori pentsatuta dagoela elikagai enpresa multinazionalentzat eta Estatuko hiltegi gehienek, ezta Euskal Herrikoak ere, ez dutela araudi hori betetzen. Erraldek gaur egun dagoen lekuan ezin du inondik inora araudi hori bete, baina osasun arloari dagokienez arau guzti guztiak betetzen ditu.

Erraldeko okela ez dator Ukrainatik eta ez da Europan zehar zabaltzen; Euskal Herrian sortutako okela da eta Euskal Herrian zabaltzen da. Beraz, Erralde ixtea nahi badute berdin jokatu beharko lukete araudi hori betetzen ez duten gure inguruko beste hiltegi guztiak.

Erralde ha demostrado en los últimos años que es posible un modelo social donde trabajan conjuntamente baserritarras, carniceros y consumidores. Ha demostrado que es posible encauzar lo autóctono y dar pasos prácticos hacia la soberanía alimenticia.

Los representantes de Erralde fueron a Bruselas y les indicaron que es posible una moratoria para que el matadero de Durango pueda seguir con su actividad. Por lo tanto, adquiridas las tierras de Berriz, elaborado y aceptado el proyecto para el nuevo matadero, atada la financiación del 40% con el Gobierno Vasco, estamos todavía esperando la respuesta de la Diputación Foral de Bizkaia.

Teniendo en cuenta lo que supone Erralde para la ciudadanía de Bizkaia y para los baserritarras la única respuesta posible es: **¡No se puede cerrar Erralde, no lo cerrarán!**



Erralde eredu: beharrezko zerbitzu publikoa

Zerbitzu horren baitan, 2011an 10.000 abelburu hilko dira Durangon, horietatik 8.000 Bizkaikoak. Erabiltzaileen artean, aipatu behar da harakinek osotasunaren %95a suposatzen dutela.

Herrialdeari zerbitzu publiko ordezkazina eskaintzen dio 15 Udaletzek osatutako elkarteak: arlo ekonomikoari dagokionez, lehen sektorea eta merkatari txikien aldeko lan itzela egiten du eta kontsumitzaileak kontuan hartuta, bertatik bertarako goi mailako okela eskuratzeko aukera ematen die.

Azken urteetan lan egiteko eredu sozial bat posible dela erakutsi du Erraldek, baserritarrak, harakinak eta kontsumitzaileak elkartzen dituen tresna da. Erakutsi du posible dela bertakoa bertarako bideratzea eta elikadura burujabetzaren alde pausu praktikoa ematea.

Bruselara joan ziren Erraldeko ordezkariak eta Durangon duen hiltegiak lanean jarraitzeko luzamendua posible dela adierazi zieten. Beraz Berrizko lurrak erosita, hiltegi berriaren proiektua egin da eta onartuta, Jaurlearitzarekin proiektuaren %40ko finantziazioa lotuta, Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzunaren zain gaude oraindik.

Kontuan hartuta zer suposatzen duen Erraldek Bizkaiko herriarentzat eta baserritarrentzat erantzuna bakarra izan daiteke:

Erralde ezin da itxi, ez dute itxiko!

Korrika



Andra Mariko jaiak



Inauteriak



2011 Mallab

Ohar honen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu
MALLABIA BIZIAGOA IZATEN laguntzen duten guztiei: Futbito Taldea, Andren Elkartea, Zaparrada Elkartea, Gurasoen Elkartea, Jasokunde eta Mendibil abesbatzak, Orraitio, Gazte Abertzaleak, Txondor herrikirol taldea, Pilota eskola, Jubilatuen Elkartea, Gazte Alai dantza taldea... eta isil-isilik anonimoki hamaika ekintza aurrera ateratzen lagundu duzuen guztioi. **MILA ESKER GUZTIOI!**



Dantzariak



Azoka



I. Mendi Duatloia

Txitxiburduntzi



Olentzero



Iturrixen ibilbidie



San Juan gaba



El 27 de noviembre se disputó en Mallabia la séptima prueba del Circuito de Duatlon de Montaña de Euskal Herria que ha surgido este año.

El Duatlón dio comienzo y finalizó en la plaza. Los participantes dieron dos vueltas al circuito de 3,1 Km. corriendo; después 2 vueltas a un circuito de 8,5 Km. en bicicleta para terminar con otra carrera a pie.

En septiembre se juntó un grupo de diez personas para la organización de la prueba: conseguir los permisos de los propietarios de terrenos, limpiar y preparar el circuito, conseguir la financiación para la prueba hablando con empresas y taberneros, ponerse en contacto con el Ayuntamiento, conseguir permisos en Diputación, conseguir médico y ambulancias, sacar carteles... Un trabajo ejemplar para el pueblo porque el 27 de noviembre estuvieron más de 70 personas ayudando para que todo saliera como debiera, porque la prueba fue autofinanciada sin pedir dinero a las instituciones públicas (en este caso al Ayuntamiento) y porque ese día hubo muy buen ambiente en Mallabia.

Hubo 124 participantes en la duatlón, pocos mallabitarra entre ellos, y es que como iba a haber mallabitarra si estaban ayudando en la organización. El próximo año otra vez, pues Mallabia terminó este maravilloso día con ánimo de ser, el año que viene, uno de los pueblos del Circuito de Duatlón de Montaña.

De verdad que la organización de este duatlón de montaña ha sido ejemplar; ha surgido del pueblo y para el pueblo.

MALLABIKO I. MENDI DUATLOIA

I. Duatlón de Montaña de Mallabia

Azaroaren 27an lehiatu zen, aurten sortu duten Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituko zazpigarren proba Mallabian.

Duatloia herriko plazan hasi eta amaitu zen. Parte-hartzaileek 3,1km-ko zirkuituari itzuli bi korrika eman; ondoren, bizikletan 8,5 km-ko ibilbideari itzuli bi eta beste korrikaldi batekin amaitzeko.

Iraillean osatu zen hamar lagun inguruko talde antolatzailea, hauek izan dira lur-jabeen baimenak lortu, zirkuitua garbitu eta prestatu, froga burutzeko finantziarioa lortu herriko enpresa eta tabernariekin hitz eginez, Udalarekin hartu-emanetan jarri, Aldundian baimenak lortu, medikua eta anbulantziak lortu, kartelak atera... Benetan lan eredugarria herriarentzat: azaroaren 27an 70 pertsonatik gora laguntzen egon zirelako guztia behar zen bezala ateratzeko, froga autofinanziatu zelako erakunde publikoei (kasu honetan Udalari) sosik eskatu gabe eta egun horretan giro ederra sortu zutelako Mallabiko herrian.

124 parte hartzaile izan ziren duatloian, mallabitar gutxi euren artean, nola egongo ziren mallabitarra parte hartzen antolaketa lanetan laguntzaile bezala aritu baziren; eta datorren urterako berriro ere, Mallabia, Mendi Duatloi zirkuituko herrietako bat izaten jarraitzeko animoarekin amaitu zen egun zoragarri hura.

Benetan, mendi duatloi hau antolatu den era eredugarria izan. Herritik sortua herriarentzat.



Mallabiko Udala